

Extracto informativo del seguro de robo: tarjetas Visa Oro – LABORAL kutxa.

Extracto de las condiciones del seguro de robo, **Póliza 031706000002**, suscrita por **LABORAL Kutxa** (Tomador del seguro) y **SEGUROS LAGUN ARO, S.A.**, a partir del 1 de enero de 2017. Este extracto tiene carácter meramente informativo, para cualquier conflicto o litigio se estará a lo dispuesto en el Contrato de Seguro antes mencionado.

ASEGURADOS

Los Particulares titulares de las tarjetas **Visa Oro** emitidas por la Entidad Tomadora de la póliza.

COBERTURAS Y LÍMITES DE INDEMNIZACIÓN

ROBO Y EXPOLIACIÓN DE LAS COMPRAS: Se garantiza el pago hasta la SUMA ASEGURADA indicada para esta cobertura, en caso de robo o expoliación de los efectos adquiridos utilizando la TARJETA ASEGURADA como medio de pago durante los 90 días siguientes a la fecha de adquisición con el citado medio de pago.

Importe mínimo de compra; 50 euros.

Por debajo de esa cantidad no procede indemnización. No obstante, lo anterior, si el importe de lo robado supera los 50 euros, la indemnización se realiza sin deducción alguna.

Limite de indemnización por siniestro	500,00 €
Limite por tarjeta y año de seguro	500,00 €

DAÑO ACCIDENTAL DE LAS COMPRAS: Se garantiza el pago hasta la SUMA ASEGURADA indicada, para esta cobertura, en caso de daño accidental que se cause a los efectos adquiridos utilizando la TARJETA ASEGURADA como medio de pago, **durante los 90 días siguientes a la fecha de adquisición con el citado medio de pago.**

Importe mínimo de compra; 50 euros.

Por debajo de esa cantidad no procede indemnización. No obstante, lo anterior, si el importe de lo robado supera los 50 euros, la indemnización se realiza sin deducción alguna.

Limite de indemnización por siniestro	500,00 €
Limite por tarjeta y año de seguro	500,00 €

Exclusiones:

A título enunciativo y no limitativo, no dará lugar a indemnización:

- Los daños y/o pérdidas resultantes del uso de una TARJETA para obtener compras o alquiler de servicios, cuando éstos se hayan efectuado con TARJETAS anuladas o revocadas por la Entidad Bancaria emisora de la TARJETA.
- Los daños y/o pérdidas resultantes de la divulgación voluntaria por el ASEGURADO, o de la anotación en la TARJETA ASEGURADA o en cualquier documento, del número personal y secreto o P.I.N.
- La pérdida resultante del uso de la TARJETA de crédito o de débito emitida sin haber sido solicitada a la Entidad Bancaria emisora de la misma. Esta exclusión no será de aplicación en el caso de renovación o reposición de las TARJETAS ASEGURADAS.
- Pérdidas y perjuicios resultantes de un acto fraudulento, deshonesto o delictivo cometido por cualquier empleado de la Entidad Bancaria emisora de la TARJETA de crédito o de débito, tanto si actúa solo o en connivencia con otras personas.
- Los daños causados por dolo o acto intencional del Asegurado o de uno de sus familiares (cónyuge, pareja de hecho, descendientes o ascendientes).

- Las simples pérdidas, extravíos y hurtos.
- Los simples arañazos, daños estéticos, raspaduras, desconchados, deterioros superficiales.
- Los daños causados por desgaste o deterioro paulatino como consecuencia del uso o funcionamiento normal, erosión, corrosión, oxidación, polillas, insectos, humedad o acción del calor o del frío u otra causa que origine un deterioro gradual.
- Los daños causados por el incumplimiento de las instrucciones de utilización del bien asegurado recomendadas por el fabricante o el distribuidor.
- Los daños causados por un proceso de limpieza, tinte, reparación o restauración.
- Los robos, expoliaciones o daños a bienes asegurados en el transcurso de su transporte, traslado o desplazamiento por el vendedor, sus encargados o un tercero contratado al efecto.
- Cualquier pérdida o daño no descubiertos durante la vigencia de la PÓLIZA u ocasionados anteriormente a la toma de efecto de la misma.
- Los daños debidos a la mera acción del tiempo.
- Los daños ocasionados violentamente como consecuencia de terrorismo, rebelión, sedición, motín y tumulto popular.
- Los daños debidos a vicio o defecto propio de la cosa asegurada.
- Los daños producidos por conflictos armados, aunque no haya precedido la declaración oficial de guerra.
- Los daños que por su magnitud y gravedad son calificados por el Gobierno de la Nación como de "catástrofe o calamidad nacional".
- Los derivados de la energía nuclear.
- Las pérdidas o daños en los efectos adquiridos con la TARJETA ASEGURADA robados en el interior de vehículos aparcados o estacionados cuando no haya señales de entrada forzosa, como rotura de ventanillas, y/o puertas, o cerraduras forzadas, o cuando los efectos adquiridos se encontraban a simple vista.
- Siniestros resultantes del uso de una tarjeta de crédito para obtener cheques, cheques de viaje, órdenes monetarias, letras de cambio u otros documentos de pago de similar orden, así como cualquier promesa, orden o instrucción escrita de pagar una cierta suma en metálico sin la autorización correspondiente obtenida de la Entidad financiera emisora de la tarjeta que lo represente, ni aquellos siniestros resultantes del uso de una tarjeta de crédito para obtener compras o alquiler de servicios, cuando éstas se hayan efectuado con tarjetas anuladas y/o revocadas por la Entidad emisora de la tarjeta.

CONCURRENCIA DE SEGUROS:

En el supuesto de que en el momento del siniestro exista en vigor otra póliza que cubra los mismos bienes y riesgos que se garantizan en el presente contrato de seguro, ésta póliza entrará a formar parte como segundo riesgo, es decir, en exceso de la otra póliza.

PROCEDIMIENTO DE ACTUACIÓN EN CASO DE SINIESTRO:

- Comunicar a la Oficina de LABORAL kutxa el acaecimiento del siniestro, en un plazo máximo de siete días.
- En caso de robo o atraco: Denuncia policial efectuada por el Titular de la tarjeta, en la que se indique fecha y hora exacta de la ocurrencia del hecho.
- Presentar la factura de compra de los artículos siniestrados.

----- En Donostia/San Sebastián, a 19 de enero de 2017.

Lapurreta-aseguruaren informazio-aterakina: Visa Oro - LABORAL kutxa txartelak.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, **LABORAL Kutxak** (Aseguru Hartzailea) **SEGUROS LAGUN ARO S.A.**rekin izenpetutako **031706000002** lapurreta-aseguruaren polizaren baldintzen aterakina. Aterakin hau informatzeko soilik da, eta edozein auzi edo gatazka argitzeko Polizaren Kontratuan adierazitakoaren mende egongo da.

ASEGURATUAK

Polizaren erakunde Hartzaileak jaulkitako Visa Oro txartelen titular Partikularrak.

ESTALDURAK ETA KALTE-ORDAINAREN MUGAK

EROSKETEN LAPURRETA ETA ESPOLIAZIOA: berme honetan adierazitako ZENBATEKO ASEGURATU arteko ordainketa bermatzen da, ordainbide gisa ASEGURATUTAKO TXARTELA erabiliz erositako gauzen lapurreta edo espoliazioa gertatzen bada, aipatutako ordainbide hori erabili zen eroste-datatik hasita eta hurrengo 90 egunetan zehar.

Erosketaren gutxienerako zenbatekoa; 50 euro.

Zenbateko hori baino gutxiagotatik ez da kalte-ordainik emango. Nolanahi ere, lapurtutakoaren zenbatekoa 50 eurotik gorakoa bada, kalte-ordaina emango da murrizketarik gabe.

Gehieneko kalte-ordaina ezbehar bakoitzeko	500,00 €
Aseguruko txartelaren eta urteen muga	500,00 €

EROSKETEI EGINDAKO ISTRIPUZKO KALTEA: berme honetan adierazitako ZENBATEKO ASEGURATU arteko ordainketa bermatzen da, ordainbide gisa ASEGURATUTAKO TXARTELA erabiliz erositako gauzei istripuzko kaltea eragiten bazaie, aipatutako ordainbide hori erabili zen eroste-datatik hasita eta hurrengo 90 egunetan zehar.

Erosketaren gutxienerako zenbatekoa; 50 euro.

Zenbateko hori baino gutxiagotatik ez da kalte-ordainik emango. Nolanahi ere, lapurtutakoaren zenbatekoa 50 eurotik gorakoa bada, kalte-ordaina emango da murrizketarik gabe.

Gehieneko kalte-ordaina ezbehar bakoitzeko	500,00 €
Aseguruko txartelaren eta urteen muga	500,00 €

Esklusioak:

- Adibide gisa eta inolako mugarik jarri gabe, ez dute kalte-ordainik jasoko hauek:
- Erosketak egiteko edo alokairu-zerbitzuren bat eskuratzeko TXARTEL baten erabileraren ondoriozko kalteak eta/edo galerak, eragiketa horiek egiteko TXARTELA jaulki duen Erakundeak ezereztu edo erre-bokatutako TXARTELA erabili badira.
- Eragindako kalteak eta/edo galerak, ASEGURATUAK bere borondatez zabaltzeagatik edo TXARTEL ASEGURATUAN edo beste edozein dokumentutan, zenbaki pertsonala eta sekretua edo PINa idazteagatik gertatu badira.
- Jaulkitako kreditu edo zordunketa TXARTELAREN erabileraren ondoriozko galera, ez bazaio Banku Erakunde jaulkitzaileari eskatu. Esklusio hori ez da aplikatuko TXARTEL ASEGURATUAK berritu edo ordeztu badira.
- Kreditu edo zordunketa TXARTELAREN jaulkitzailea den Banku Erakundeko edozein langilek egindako maulazko, bidegabeko edo delituzko ekintza batek eragindako galerak eta kalteak.

- Aseguratuak edo haren familiakoek (ezkontidea, egitatezko bikotekidea, ondorengoak edo aurrekoak) doloz edo nahita egindako ekintzen ondoriozko kalteak.
- Galerak, galtze hutsak eta ebasketak.
- Marradurak, kalte estetikoak, atzamarkadak, altxatuak, gainazaleko marradura soilak.
- Erabileraren edo funtzionamendu normalaren, higaduraren, korrosioaren, oxidazioaren, sitsen, intsektuen, hezetasunaren edo beroaren zein hotzaren eraginez edo bestelako arrazoiren batek eragindako pixkanakako narriaduren edo higaduraren ondoriozko kalteak.
- Aseguratutako ondasunaren fabrikatzaileak edo banatzaileak gomendatutako erabilera-jarraibideak ez betetzeagatik gertatutako kalteak.
- Garbitu, tindatu, konpondu edo zaharberritu bezalako prozesuek eragindako kalteak.
- Saltzaileak, arduradunek edo horretarako kontratatutako hirugarren batek aseguratutako ondasunak garraiatu, lekualdatu edo eramatean gertatutako lapurretak, espolioazioak edo kalteak.
- POLIZAREN indarraldian zehar edota poliza indarrean jarri aurretik ikusi ez den edozein galera edo kalte.
- Denboraren iragateak berak eragindako kalteak.
- Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilen ondorioz bortxaz eragindako kalteak.
- Aseguratutako gauzaren berezko bizio edo akatsari zor zaizkion kalteak.
- Gatazka armatuek eragindako kalteak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- Duten tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak "katastrofe edo hondamen nazional" gisa kalifikatzen dituen kalteak.
- Energia nuklearretik eratorritakoak.
- Aparkatutako ibilgailuen barrualdetik lapurtutako objektuetan galerak edo kalteak, TXARTEL ASEGURATUAREKIN erositakoak badira, eta ez badago ibilgailuan bortxaz sartu izanaren arrastorik, adibidez, leihatilak, ateak hautsita, sarraila bortxaz irekia edota erositako objektuak bistan bazeuden.
- Kreditu-txartel bat hauek lortzeko erabili izanaren ondorioz gertatutako ezbeharrak: txekeak, bidaia-txekeak, dibisa-aginduak, kanbio-letrak edo antzeko agindu-modua duten ordaintzeko beste dokumentu batzuk, bai eta txartelaren Finantza erakunde jaulkitzaileak eskudirutan emateko zenbateko bat ordaintzea baimendu ez duen beste edozein promesa, agindu edo jarraibide idatzia. Ez dute kalte-ordainik jasoko, halaber, erosketak egiteko edo alokairu-zerbitzuren bat eskuratzeko TXARTELA baten erabileraren ondoriozko ezbeharrak, eragiketa horiek egiteko TXARTELA jaulki duen Erakundeak ezereztu edo errebokatutako TXARTELAk erabili badira.

ASEGURUEN KONKURRENTZIA:

Ezbeharra gertatzen den unean aseguru-kontratu honetan bermatzen diren ondasun eta arrisku berdinak esaltzen dituen beste poliza bat badago indarrean, poliza hau bigarren arrisku izatera pasatuko da, hots, beste polizaren gehigarri izatera.

EZBEHARRA GERTATUTAKOAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:

- LABORAL Kutxaren bulegoan jakinarazi ezbeharra gertatu dela, zazpi eguneko epean, gehienez ere.
- Lapurreta edo atrakoa gertatuz gero: Txartelaren titularrak polizaren aurrean jarritako denuntzia, gertakariaren data eta ordua adieraziz.
- Ezbeharreko artikuluen erosketa-faktura aurkeztu.